

## Sarrera

*EGAN*, berriro, eraberritzeko asmoz datorkigu. Orain urte batzuk, bere berrogeigarren urteurrena betetzean ere aldizkaria birmoldatzeko eta indartzeko asmoak azaldu zituen. Gu asmo haiek, indar berriz, egitate bihurtzeko lehiatzeko, beste behin. 1948 urtean, une zailetan, eta ondorengo urte luzetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Mitxelena handiaren eta Irigarai eta Arrueren eskutik zintzotasunez irekitako ildo ez dela baztertzekoa, ez ahaztekoa, ez eta galtzekoa kontutan izanik, *EGAN* urtetsuari izerdi berri bat txertatzera gatoz. Hurbilagoko urtetan Joan San Martinek aldizkaria argitaratzen edukiriko sena, eta tentua, eta Julian Martinezek, bereziki, azalduetako arduraren ere gogoratzekoa eta gure esker ona adieraztekoa da.

*EGAN*ek bere lan, olerki, sorkuntza-lan, adabaki eta liburuen kritika eta erreseinen bitartez, urte askotan, euskal literaturaren orientabide, suspertzaile eta bilgune izan, eta Mitxelenak, batez ere, eskaini zigun paregabeko maisutza ahortzi ez nahiaz, ekipo berria lanean ilusioz jardutera dator.

*EGAN*, *Euskalerraren Adiskideen Elkarteko BOLETIN*aren osagarri literario bezala, euskal alorrean baratze eta gida apartekoa izan da, bertan gaur ezagun dugun olerkari, prosalari eta beste idazle anitzek parte hartu duelako, bestalde, euskal kultura isilarazia zegoen urteak ahortzi gabe. Gaur eskaintzen dugun *EGAN* jantzi eraberritura badator ere, hots, bai azalean eta bai barruko orrietan, lehengoarekin loturak ez ditugu hautsi nahi, harroak ez izaten ahaleginduko garelako, baina gaurkotatzen berarekin suposatzen duen oro ongi hartuko dugu aldizkariaren onerako.

Bereziki, azterketa literarioen saila gotortu nahi genuke egungo idazle eta literatur ikertzaileen leihoz zabal gerta dadin,

bai herri literaturaren, bai literatura landuaren eta bai egungoaren aportazioen ikuspegi sakon eta hurbilagoa dezagun. Sor-kuntzaz gain, itzulpenen bitartez kanpotiko poesia eta prosaren aire berriak gureganatu nahi genituzke egungo literaturaren urratsak hurbilagotik jarraitzearen. Liburuaren kritika eta erresei-na zatiari ere gune aparte emanen diogu euskal liburugintzaren alderik urrienetakoa hau izan ohi delako. *EGANek*, dena den, aspalditik ezagutu zuen Mitxelenaren maisutza arlo honetan, zo-rionez.

Irakurle, jaso ezazu *EGAN* aldizkariaren ale eraberritu hau ekipo berriaren indarbarritze eta gaurkotze lehiaren adierazpen berri gisa. Berau, *Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko* 50-gn. urteurrenean eta bere III. aroan dator.

Lerro hauetatik ere *Guipuzkoako Foru Aldundiari* eta *Eusko Jaurlaritzari* eskertza apartekoa adierazi nahi diogu, bere la-guntzari esker *EGAN* bizitzen eta euskal literaturaren baratzea ernaberritzen jarraitu ahal izanen dugulako. Denoi bada gure ongietorri beroena.

*EGANek*